

Getxo, 2012ko maiatzak 16

**GETXOKO UDALAREN ETA CAIXAKO GIZARTE-EKINTZAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA <GSW-GETXO SEA WEEK> SUSTATZEKO**

**ESKU HARTU DUTE**

Batetik, la Caixako Gizarte Ekintza, aurrerantzean CGE, Bartzelonako Diagonal etorbideko 621. zenbakian helbidea duena, A08663619 IFZrekin. la Caixaren izenean eta ordezkartzan arituko da Jose Manuel Bilbao Kamio jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkar Nagusi gisa.

Bestetik, Getxoko Udala, Getxoko Foruen kaleko 1 zenbakian helbidea duena, P-4805300C IFKrekin. Udalaren izenean eta ordezkartzan arituko da Imanol Landa Jauregin jauna, Getxoko Alkate gisa.

Bi aldeek lankidetza-hitzarmen hau egiteko gaitasuna aitortzen diote elkarri.

**ADIERAZI DUTE**

I.- CGEk esku hartu nahi duela Turismo Bulegoak udalerrian 2012 eta 2013 urteetan turismoa sustatzeko esparruan garatuko dituen hezkuntza-jardueretan eta jarduera didaktikoetan.

II.- CGE eta Getxoko Udala/Turismo Bulegoa lankidetza-hitzarmena egitera iritsi direla.

III.- CGEk eta Getxoko Udalak/Turismo Bulegoak lankidetza-hitzarmen hau egin dutela ondorengo baldintzekin:

**Estipulazioak**

**1.- Xedea**

CGEk eta Getxoko Udalak (Turismo Bulegoa) GSW- GETXO SEA WEEK-en 2012 eta 2013 edizioetarako elkarrentzako prestazio batzuk ezartzea.

**2.-CGEren betebeharrak**

CGek ondorengo konpromisoak izango ditu:

- Haren marka/irudia erraztea euskarri digitalean eta bereizmen handian
- 20.000,00 euro ordaintzea, zati berdinetan 2012 eta 2013 urteetan

- "la Caixa" Fundazioko Kultur Proiektuen Sailaren / Kultura Sailaren bidez, la Caixaren kontura egitea ondorengo musika-taldeen emanaldiak Getxo Sea Week '12 programaren barruan:

- a. Ostirala, 2012ko ekainak 29, 21:00etan: ALMA AFRAOBEAT
- b. Larunbata, 2012ko ekainak 30, 21:00etan: GAFIEIRA MIÚDA

- la Caixaren web orrialdean esteka bat jartzea ekimenaren web orrialdean sartu ahal izateko:

[www.getxoseaweek.com](http://www.getxoseaweek.com)

- Saioaren antolakuntzak aterako duen liburuxka orokorra banatzeko display-ak la Caixak udalerrian dituen sukurtsaletan eta eskuin aldean eta/edo komenigarritzat jotako beste zonetan daudenetan jartzeko aukera izatea.

### **3.- Getxoko Udalaren (Turismo Bulegoa) betebeharrak**

Turismo Bulegoak CGE jarduera sustatzeko ondorengoak egin beharko ditu:

- a. Irudi korporatiboa sartzea GSW12 ekimena komunikatzeko ondorengo euskarrietan, erakunde kolaboratzaile moduan:

- Informazio orokorreko liburuxka tolesgarria
- Kartel orokorra, A3 tamainakoa
- Ekimenaren web orrialdea
- Ekimena sustatzeko bideoa
- Prentsa-iragarkiak
- Eta, oro har, ekimena iragartzen den publizitate guztian (inprimatua)

- b. Irudi korporatiboa sartzea babestutako jardueraren elementu didaktiko eta hezkuntza-elementuetan, hots, logotipo-motaren bat dutenetan. CGE marka leku nabarmenean agertuko da, ekimenaren beraren eta antolatzailearen irudiarekin batera. Horrek ez du esan nahi ekimenaren babesle nagusien logotipoak sartu behar ez direnik, protagonismo txikiagoa izango badute ere:

- GSW'12 – Getxo Sea Week
  - Itsas hondoen inguruko maleta pedagogikoa
- 4 unitate euskaraz
- 2 unitate gazteleraz

4 jolas didaktiko

- Anemory
- Biogune
- Memorion 9
- Trofik

6 poster (A3) kostako biotipoen ingurukoak

Gida Didaktiko 1

- Itsas postalen inguruko lehiaketa haurrentzat
- Oinarri arautzaileak
- Partxisa
- Informazio birtuala web orrialdean

- GSW'13 – Getxo Sea Week: burutuko den antzeko jarduera didaktiko eta edukatiboa; dena den, GSW'13 egitea erabakitzen denean, egin beharreko prestazioak zehaztu ahal izango dira, egun zehatz ezin daitezkeenak eta sinatzen duten bi aldeentzat interesgarriak direnak.
- c. CGE marka duten publizitate-pankartak jartzea hark babestutako jarduerak garatzerakoan; pankartak CGEk emango ditu.
- d. CGE instituzio-marka ikustea bermatzea bi musika-taldeek joko duten lekuan eta ekimenaren web orrialdean iragartzea.
- e. CGE marka behar bezala aplikatzea deskribaturiko euskarrietan.
- f. Maleta pedagogikoak eta itsas postalen lehiaketa sustatzeko eta hedatzeko Getxoko Udalak deituriko prentsaurrekoan parte hartzea.
- g. Era berean, Turismo Bulegoak gonbidapenak emango dizkio CGEri horiek behar diren jardueretarako.

#### **4.- Bermeak**

Getxoko Udalak / Turismo Bulegoak CGEri bermatzen dio jarduerak behar bezala gauzatzeko eta eratzeko dagozkion betebeharrak guztiak egunean dituela, eta espresuki aitortzen du prestatutako jarduerak bete egiten duela indarrean dagoen legediak segurtasunaren inguruan ezarritako araudia.

#### **5.- CGEren diru-laguntza**

Aurreikusitako lankidetzaren kontraprestazio gisa, CGEk guztira hogeita mila euro ordainduko dizkio Getxoko Udalari. CGEk kopuruak banku-transferentziaren bidez ordainduko ditu honako epe hauen barruan:

- 10.000,00 € hitzarmen hau sinatzen den unetik aurrera eta 2012ko maiatzaren 15a baino lehen.
- 10.000,00 € 2013ko programa aurkezten denetik aurrera eta 2013ko maiatzaren 15a baino lehen.

Banku-transferentzia Getxoko Udalaren kontu-zenbakian egingo da (2100-2357-95-0200125497), eta kontzeptu gisa honako hau jarriko da: <GSW-Getxo Sea Week-erako diru-laguntza>.

#### **6.- Indarraldia**

Hitzarmen hau indarrean izango da sinatzen den egunetik 2013ko abenduaren 31 bitarte.

#### **7.- Jabetza intelektual eta markak**

CGEk baimena ematen dio Turismo Bulegoari haren marka eta/edo CX la Caixarena hitzarmen honen barruko komunikazio-euskarrietan sartzeko soilik erabiltzeko.

## **8.- Esklusibitate-eza**

Hitzarmen hau indarrean den bitartean, bi aldeetako edozeinek izaera bereko beste hitzarmen batzuk egin ahal izango ditu beste erakunde eta/edo instituzio publiko zein pribatuekin, GSW-Getxo Sea Week-en 2012ko eta 2013ko edizioak egiten ari direnean finantza-sektoreko gizarte-ekintzako ekimenak izan ezik.

## **9.- Datuak babestea**

Norberaren Datuak Babestearen inguruko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 5. artikulua betetze aldera, CGEk adierazi du agiri honetako datu pertsonalak kontratazioak kudeatzeko eta dagozkien transakzioak kontabilizatzeko fitxategi informatizatuetan sartuko direla. CGEk datu horiek erabiliko ditu soilik hitzarmena gauzatzeko beharrezkoak diren helburuetarako.

Informazioaren hartzailea eta datuen tratamenduaren erantzulea CGE da. Helbidea: Diagonal etorbidea 621, Bartzelona; telefonoa: 94.435.62.39

## **10.- Ez betetzea**

Kontratu honetan aurreikusitako klausularen bat alderdietako edozeinek betetzen ez badu, beste aldeak behar bezala betetzeko eskatu ahal izango dio edota ebatzi ahal izango du, bi kasuetan dagozkion legezko ekintzak gauzatzea alde batera utzi gabe.

Eta horrela jasota gera dadin eta ados daudela erakusteko, bi alderdiek sinatzen dute agiri hau bi aletan eta ondorio bakar baterako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

**Ia Caixako Gizarte Ekintza  
FUNDAZIOA**

**GETXOKO UDALA**

**Sin.:** José Manuel Bilbao Kamio jauna

**Sin.:** Imanol Landa Jauregi jauna

Getxo, 16 de mayo de 2012

**ACUERDO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y LA OBRA SOCIAL DE LA CAIXA EN EL EVENTO DE PROMOCIÓN TURÍSTICA <GSW- GETXO SEA WEEK>**

**INTERVIENEN**

De una parte, la Obra Social de la Caixa, en adelante OSC, con domicilio social en Avda. Diagonal número 621, de Barcelona y NIF: A08663619, y actuando en su nombre y representación D. José Manuel Bilbao Kamio, en su calidad de Delegado General del País Vasco.

Y de la otra, Ayuntamiento de Getxo, con domicilio social en C/ Fueros, 1 de Getxo y CIF P-4805300C, y en su nombre y representación D. Imanol Landa Jauregi, en su calidad de Alcalde de Getxo.

Las partes se reconocen capacidad para otorgar el presente acuerdo de colaboración y,

**MANIFIESTAN**

I.- Que OSC desea colaborar con las actividades educativas y didácticas realizadas en el marco de la promoción turística que la Oficina de Turismo desarrolle en el municipio en los años 2012 y 2013

II.- Que OSC y el Ayuntamiento de Getxo/ Oficina de Turismo, han llegado a un acuerdo de colaboración.

III.- Que OSC y el Ayuntamiento de Getxo/ Oficina de Turismo formalizan el presente acuerdo de colaboración, sujeto a las siguientes:

**Estipulaciones**

**1.- Objeto**

Establecimiento por parte de OSC y el Ayuntamiento de Getxo (Oficina de Turismo) de una serie de prestaciones mutuas limitadas al evento GSW- GETXO SEA WEEK ediciones 2012 y 2013.

**2.- Obligaciones de la OSC**

La OSC se compromete a:

- facilitar su marca/imagen en soporte digital en alta resolución

- abonar la cantidad total de 20.000,00 euros, a partes iguales los años 2012 y 2013
- facilitar a su costa, a través del Departamento de Proyectos Culturales / Área de Cultura de la Fundación "La Caixa" la actuación de los siguiente grupos musicales dentro del evento Getxo Sea Week'12:
  - c. Viernes 29 de junio de 2012 a las 21 horas: ALMA AFRAOBEAT
  - d. Sábado 30 de junio de 2012 a las 21 horas: GAFIEIRA MIÚDA
- habilitar un enlace link desde su página Web a la página Web del evento [www.getxoseaweek.com](http://www.getxoseaweek.com)
- permitir la ubicación de los displays expendedores del folleto general, a facilitar por la organización del evento, en las sucursales que la Caixa dispone en el municipio y en aquellas de la margen derecha y/u otras zonas que estime conveniente

### **3.- Obligaciones del Ayuntamiento de Getxo (Oficina de Turismo)**

La promoción a realizar por la Oficina de Turismo de la actividad de la OSC, consistirá en:

- h. incluir su imagen corporativa en los siguientes soportes de comunicación del evento GSW12, como entidad colaboradora:
  - folleto desplegable de información general
  - cartel general, tamaño A3
  - página Web del evento
  - video promocional del evento
  - anuncios en prensa
  - y, en general, en toda la publicidad impresa anunciadora del evento
- i. incluir su imagen corporativa en los elementos didácticos y educativos de la actividad patrocinada que incorporen algún tipo de logotipo. La marca de OSC figurará en lugar destacado, junto con la imagen propia del evento y del organizador. Ello no condiciona la inclusión de logotipos de los patrocinadores principales del evento, si bien éstos dispondrán de menor protagonismo:
  - GSW'12 – Getxo Sea Week
    - Maleta Pedagógica sobre los fondos marinos
      - 4 unidades en Euskara
      - 2 unidades en castellano
  - 4 juegos didácticos
    - Anemory
    - Biogune
    - Memorion 9
    - Trofik
  - 6 pósters A3 sobre biotipos costeros
  - 1 Guía Didáctica
    - Concurso infantil de postales marineras
      - bases reguladoras
      - el juego del parchís
      - información virtual en la página Web

- GSW'13 – Getxo Sea Week: actividad didáctica y educativa similar que se lleve a término, sin perjuicio de que, una vez se acuerde la celebración de GSW'13, se detallen las prestaciones a efectuar que no se pueden detallar a día de la fecha, y que sean del interés de ambas partes firmantes.

- j. Colocar pancartas publicitarias con la marca de la OSC durante la celebración de las actividades objeto de su patrocinio, facilitadas por OSC
- k. Garantizar la visibilidad institucional de OSC en el lugar donde actúen los dos grupos de música y anunciándolo en la página Web del evento
- l. Correcta aplicación de la marca OSC en los soportes descritos.
- m. Participación en la rueda de prensa a convocar por el Ayuntamiento de Getxo para la promoción y difusión de las maletas pedagógicas y concurso de postales marineras
- n. Asimismo, la Oficina de Turismo entregará a OSC invitaciones para las actividades en las que se requieran.

#### **4.- Garantías**

El Ayuntamiento de Getxo / Oficina de Turismo garantiza a la OSC que se encuentra al corriente en el cumplimiento de todas las obligaciones que le corresponden para la correcta ejecución y desenvolvimiento de sus actividades y expresamente reconoce que la actividad prestada cumple con la normativa de seguridad establecida por la legislación vigente.

#### **5.- Colaboración económica de OSC**

En contraprestación a la colaboración prevista, la OSC abonará al Ayuntamiento de Getxo la cantidad total de veinte mil euros. La OSC hará efectiva las cantidades mediante transferencia bancaria de la siguiente forma:

- 10.000,00 € a partir de la firma del presente convenio y antes del 15 de mayo de 2012.
- 10.000,00 € a partir de la presentación del programa 2013 y antes del 15 de mayo de 2013.

La transferencia bancaria del importe de la colaboración se realizará a la cuenta del Ayuntamiento de Getxo, Nº: 2100-2357-95-0200125497, indicando como concepto <Colaboración GSW-Getxo Sea Week>.

#### **6.- Vigencia**

Este acuerdo estará vigente desde el día de su firma hasta el 31 de diciembre de 2013.

## **7.- Propiedad intelectual y marcas**

La OSC autoriza la Oficina de Turismo a utilizar su marca y/o la de CX la Caixa con la finalidad única y exclusiva de incluirlos en los soportes de comunicación objeto del presente acuerdo.

## **8.- No exclusividad**

Durante la vigencia del presente acuerdo, cualquiera de las partes podrá formalizar otros acuerdos de la misma naturaleza con otras entidades y/o instituciones de carácter público o privado, excepto iniciativas de obra social del sector financiero durante la celebración de GSW – Getxo Sea Week, ediciones 2012 y 2013.

## **9.- Protección de datos**

En cumplimiento del art. 5 de la LO 15/1 999 de 13 de Diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, la OSC informa que los datos personales obrantes en el presente documento se incluirán en ficheros informatizados para la gestión de las contrataciones y de la contabilización de las correspondientes transacciones, y se compromete a no utilizar los datos recogidos para fines que no sean estrictamente necesarios para la realización de su cometido.

El destinatario de la información y responsable del tratamiento de datos es OSC cuya dirección es Avda. Diagonal número 621, de Barcelona y teléfono nº 94.435.62.39

## **10.- Incumplimiento**

Si cualquiera de las partes incumpliera alguna de las cláusulas previstas en el presente contrato, la otra parte podrá exigir su correcto cumplimiento, o bien resolverlo, sin perjuicio en ambos casos del ejercicio de las acciones legales correspondientes.

Y para que así conste y en prueba de conformidad, lo firman ambas partes por duplicado y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**FUNDACION**  
**Obra Social de la Caixa**

**AYUNTAMIENTO DE GETXO**

**Fdo.** D. José Manuel Bilbao Kamio

**Fdo.** Imanol Landa Jauregi